


Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Nekazaritza aseguruak *versus* klima aldaketa



Beroaldiak, harria eta basoetako suteak gure herrialdeko nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzei eragiten ari dira. Kalteak lurzorua higatu eta «estres hidriko» egoerak eragiten dituzte, baita gune ureztatueta ere, eta areagotu egiten da ur-kontsumoa.

Klima aldaketaren ondorioak

Itxura denez, uste baino azkarrago ari da klima aldatzen, eta tenperaturen igoera, muturreko fenomeno meteorologikoak eta klimaren erradikalizatzea eragiten ditu. Hezeguneak gero eta hezeagoak dira eta eremu lehorrak, gero eta lehorragoak.

Aurreikuspenen arabera, berotzen jarraituko du Lurrak, eta horrek lurruntze handiagoa eragingo du. Itsas maila ere igo egingo da. Azken mende erdian, igo egin da ozeanoen tenperatura, eta handitu egin da horien azalera, glaziarren urtzearen ondorioz; ur horiek itsas eremuetara isurtzen dira.

Tenperatura altuek eurite latzak eta ekaitzak eragiten dituzte. Igoera termometrikoarekin lotuta, lurruntzea areagotu eta lehortek handitzen dira.

2015. urtea inoizko urterik lehorrena izan da segur aski

2015. urtearen lehen erdia inoizko beroena izan da, mundu osoan, erregistroak dau-denetik. Azken sei hileko batez besteko tenperatura XX. mendeko batez bestekoa baino 0,85°C handiagoa da. Nolanahi ere,

munduko lurrazaleko tenperatura iazko mendeko batez bestekoa baino 1,40°C handiagoa da.

Pablo de Olavide Unibertsitatearen (Sevilla), Unibertsitate Konplutentsearen (Madril) eta CSICen Geozientzia Institutuaren azterketa baten arabera, **klimaren aldaketaren ondorioz 21 egun luzatu da uda 35 urtean.** Hau da, uda nabarmen luzatu da Europan 1970. urteaz geroztik, batez beste 6 egun hamarkada bakoitzean.

Nekazaritza aseguruak

Soroetan, zerura, klima aldaketari eta planetaren beroketari begira daude beti. Prebenitzeko, **Europar Batasunak ahalbidetzen duen babesik handiena eman dien Nekazaritza Ministerioak 2015. urtean hondamendiak estaltzen dituzten aseguruak, polizen kostuaren %65 bere gain hartuta.**

Ministerioaren Planak **%7 eta %33 artean handitu zituen** «hondamendien ondoriozko kalteak ordaintzen dituzten **polizek baino estaldura handiagoak eskaintzen dituzten polizak kontratatzen dituzten nekazarietarako» oinarritzako diru laguntzak.**

Gainera, 3.000 €-tik gorako nekazaritza polizen ordainketa zatitzeko aukera eman zuen.

Aseguru kontuetan aditu gaituzenez, ez eduki zalantzarik kontsultatzeko: **hobe aurrea hartzea, gero damutzea baino.**

#E2K
BROKERNET
Aseguru Artekarien
Sare Nazionala

Hileroko buletina
Nº 35 / Urtarrila 2016

Bankuek entzungor egiten diete bezeroen kexei

«Jainkoari erreguz, beharrari mailuz».

Gauza bat da bankuen publizitateak dioena, eta beste bat euren bezeroekin egiten dutena, baita arrazoia edukita erreklamatzeko dutenean ere.

«Orduan... zein da aurrena: bezeroa edo bankua?»

Kasu honetan, erraza da erantzuna: zure finantza erakundea zu baino garrantzitsua goa da. Ikus dezagun.

2014. urtean, Balore Merkatuaren Batzarde Nazionalak (CNMV) 3.754 txosten argitaratu zituen, eta kasuen %60tan bezeroak zuen arrazoi. **Bankuek 196 kasutan bakarrik egin zuten zuzenketarik**, jasotako kontsulta eta erreklamazioen %7,3tan. Kexa gehienak produktu baten inguruko informazio eskasarekin edo inbertsiogilearentzat egokia ez izatearekin zeuden lotuta.

Zergatik ez diete egiten kasu bankuek CNMVri?

Horren iritzia ez delako loteslea; nolana ere, erabakigarria izan daiteke bezeroak epailearengana jotzea erabakiz gero.

Bestalde, gogorazi nahi dizugu bankuek ez dutela aseguru-industria ezagutzen eta beste zerbitzu batzuekin lotuta saltzen dituztela aseguruak; hortaz, poliza horiek ez zaituzte bezero gisa babesten, zure beharrei erantzun beharrean beste interes batzuei erantzuten baitiete. Eta **ezin zaituzte aseguru bat egitera behartu**; askatasun osoa duzu egoki deritzezun aseguru-etxea aukeratzeko.



Gogoan hartu damutu baino lehen

Hileroko buletina / Nº 35 / Urtarrila 2015

Urtarrilaren 1etik aurrera, %50eraino haziko dira zirkulazio istripuek eragindako heriotzen ondoriozko kalte-ordainak



Errepidean zoazela, abiadura bat-batean jaistera behartzen zaituen argizko seinale bat ikusten duzu. Aurrera egin, eta istripu bat gertatu dela konturatzen zara. Beste aldera begiratu, eta larria ez izatea espero duzu. Zorionez, ez zaizu zuri gertatu, baina behar izanez gero zure aseguruak babestu eta kalte-ordainak emango lizkizukeela konturatzen zara automatikoki.

Urtarrilaren 1ean, **Istripuen Baremo Legea** sartu zen indarrean, **zirkulazio istripuen ondorioz pertsonen eragindako kalteak eta galerak baliozkotzeko sistema** ezartzen duena; beste istripu batzuetan ere aplikatu daiteke baremo hori, lan istripuetan edo okerreko osasun praxietan, besteak beste.

Heriotzen ondoriozko kalte-ordainen igoera da berrikuntza nagusietako bat, **%50 igo baitira batez beste**. Istripuen ondoriozko **arrastoen kalte-ordainak ere %35 igo dira, eta lesioen kalte-ordainak, %12, 58 batez beste**.

Zer aldatu da?

Beste onuradun batzuk agertu dira, **kaltetu gisa sailkatu direnak**: adinez nagusi diren anaia-arrebak, bikotekide

egonkorrak, euren guraso biologikoak ez diren senideekin bizi diren adingabeak, gutxienez bost urtean biktimarekin familiar bizi izan diren **senideak** batez ere.

Eta aldatu egin da biktimarentzako kalte-ordainak kalkulatzeko metodoa, lortu gabeko irabaziaz sartuta, hau da, kaltea gertatu ez balitz lortuko genituzkeen irabazien galerari dagokiona.

Lege berriak aintzat edukiko dituzten biktimen diru-sarrerak, etxean egin dezaketen lana eta adingabe edo ikasleentzako etorkizunerako gaitasunen galera.

Aseguru artekariok txalotu egin dugu erreforma; izan ere, kontsumitzaileen alde jarri eta erreforma biktimen onerako dela uste dugu, haien estaldurak hobetzen baitituzte.

Bat gatzat Justizia ministro Rafael Catalaren 2014ko irailaren 19ko adierazpenekin ere: «**funtzio ekonomiko hutsetik harago, kohesio sozialerako faktore bihurtu da aseguruaren funtzioa**; herritarren ongizatea lortzen laguntzen du, hain konplexuak diren gaiak ongi kudeatuta».

Hondamendi handietan, Partzuergoak estaliko ditu ibilgailu aseguratutako guztiak

Uztaitetik aurrera, berri onak edukiko ditugu hasi berri dugun urte honetan. Uholde edo lurrikara kasuetan, **Ekonomia Ministerioak handitu egingo ditu Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren kalte-ordainak, aseguratutako ibilgailuei dagozkienak**. Orain arte, arrisku orotarako poliza zutenak bakarrik estaltzen zituzten.

Euriteak, kazkabarra, ekaitzak edo lurrikarak izaten direnean edo ibaiek gainezka egiten dutenean, ohikoa izaten da ibilgailuek kalteak izatea.

2015eko hirugarren hiruhilekoan, 11-13 milioi euro erabili zituzten Partzuergoak Espainia hegoaldean eta Balearretan irailaren 3tik 9ra izandako euriteek eragindako 3.135 ezbeharraren ondoriozko kalte-ordainak ordaintzeko.

Urtarrileko merkealdia: «arduratsua handiarekin eta eskuzabala txikiarekin»

Urtarrilean, «Patxi gaiztoa» etortzen zaigu merkealdiarekin batera. Gabonetan gehitxo ireki duzu diru-zorroa agian, eta «aparteko ordainsaria» pixka bat luzatu nahian zabiltza, deskontuei etekina ateratzeko. Lehenik eta behin, **PLANIFIKATU** egin behar duzu.



Jo zure aseguru artekariarengana, eta errepasatu harekin polizak, 2016ko balio errelera egokitzeko. Ez ibili zuhurkerian zure etxearen edo autoaren bermeeekin, eta are gutxiago zure familiaren osasunari dagozkionekin. Alkandora batek balio dituen 20 euroak ezinbestekoak izan daitezke, agian, zure aseguruari aparteko babesa emateko.

Ondoren, aztertu «nahitaezkoak» ez diren hileko gastuak: gimnasioa (erabiltzen ez baduzu), ordainpeko TB kanala (ikusten ez baduzu) edo harpidetzak (aldizkariak irakurtzen ez badituzu). Horretaz gain, eskudiruarekin ordaindu (txartelarekin baino hobea), aurrezta berogarria eta argindarra (tenperatura errelea eta kontsumo txikiko lanparak jarrita) eta beharrezkoa duzuna bakarrik erosi.

«Aurrezkitxo» horietako asko 12 hilabeteetan biderkatu ahaliko dituzu. Atera kontuak eta ikusi zure itsulapikoa nola betetzen den 2016. urtean.

Ikerketa

Gomendioak